

ELGERA



**KARLA
MARTINEZ
SANCHO**

**“YOUTUBEN KANAL BAT
IREKITZEAN MAIZTASUNA,
INPLIKAZIOA ETA GOGOA
BEHAR DITUZU”**



- 3 Bilboko euskalgintza
- 4 Elkarriketa
- 6 Inkesta
- 7 Jarduerak
- 8 Erreportajea
- 10 Hizkuntza erabilera
- 12 Zientzia
- 13 Bideo-jokoak
- 14 Berrikuntza Proiektuak
- 15 Bitxikeriak
- 16 Jarduerak
- 17 Denbora-pasak
- 18 Auzoak

aurkibidea

ELGERA 10. ZK APIRILA

- 20 Lanbide Heziketa
- 22 Kirola
- 23 Elorri Bertso-Eskola



Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adrian BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos Deusto HLBIP, La Salle Bilbao HLBIP, San Inazio BHI eta B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. Koordinazioa: B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 4.400. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

Salestarrek Euskararen Etxea konkistatu dute!

Euskararen Etxea Bilboko San Inazio auzoan dago, eta sortu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Udalaren eta Eusko Jaur-laritzaren arteko lankidetzari esker; beraren helburua euskarari buruzko gune espezializatuia izatea da.

2004ko abenduaren 3tik Euskararen Etxeko ateak zabalik daude euskaltzaleentzat, ikertzaileentzat eta euskarari buruzko gaietan interesa izan dezaketen pertsona guztientzat.

Goizeko hamarrak zirenean oinez abiatu ginen Euskararen Etxera. Bidean jolasten eta hitz egiten, bikain pasa genuen.

Etxera heltzean, monitorea eza-gutu genuen; Mikel. Lehenengo solairura igo ginen eta berokiak eskegi genituen. Jarraian, bideo bat ikusi genuen euskalkiei buruz eta pixka bat azaltzen zuen euskararen historia. Hori eta gero, ondoko gela batera joan ginen eta gezurrezko tren bat ikusi genuen. Bertan pantaila asko zeuden eta Mikelekin ariketak egin genituen eta galderak ere egin zizkigun.

Horren ondoren, bigarren solairura igo ginen eta handik pixka batera, ordenagailuekin jolastu ahal izan genuen. Hasieran guztiok



batera eta geroago, binaka edo hiruak egin genuen.

Jolastu eta gero, berokiak hartze-ra joan ginen eta azkenean taldeko argazkia egin zigun Mikelek.

Oso ondo pasatu genuen eta euskararen gainean gauza asko ikasi genituen.

Anima zaitetzte eta zoazte bisita egitera!

“Youtuben kanal bat irekitzean maiztasuna, inplikazioa eta gogoia behar dituzu”

Rekaldeberri BHI



Karla Martinez Sancho, Rekaldeberriko 2. Batxilergoko ikaslea eta youtuberra. Orain dela hiru urte hasi zen bideoak igotzen, bere youtuber kanalean.



Zergatik hasi zinen Youtuben bideoak igotzen?

Orain dela urte asko hasi nintzen Youtuben bideoak ikusten, oso pertsona berritsua naitzenez eta kamara aurrean egotea asko gustatzen zaidanez, orain dela hiru urte nik ere Youtuben bideoak igotzen hastea erabaki nuen.

Zein da bisita gehien dituen bideoa?

Orain dela denbora luze igo nuen bat da, nire *pircing*-ei buruz hitz egiten dut bertan.

Mundu osoko jendeak ikusten zaitu?

Hainbat leku desberdinetako jendeak ikusten nau, baina gehienak Espainiakoak eta Latinoamerikakoak dira.

Gustatuko litzaizuke Youtuben zure lanbidea izatea?

Youtuben norbaitek lanbidea izatea oso zaila da eta nik ez nioke inori gomendatuko Youtuben hastea helburu horrekin, baina egun batean, hori lortuko banu, ikaragarria izango litzateke eta oso zorionsua izango nintzateke nire *hobby* gogokoena nire lanbidea bihurtuko balitz.

Eta zuri zein da gehien gustatzen zaizuna?

Mota askotako kanalak jarraitzen ditut eta

oso zaila da bat aukeratzea, baina bidaiatzea eta mundua ezagutzea asko gustatzen zaidanez, *Mola viajar* kanala aukeratuko nuke.

Zertan datza zure kanala?

Hasieran, arropan eta modan oinarritzen zen, baina denbora pasa ahala zenbait gai desberdinekin tartekatzen dut. Adibidez, *challenge*-ak, *tags*, ausazko gaiak, etab... egiten ditut. Beraz, gaur egun, nire kanalak ez dauka gai bakarra.

Zer gomendio emango zenioke Youtuben hasi nahi duen pertsona bati?

Hasteko, konpromiso bat hartzea, zeren eta Youtuben kanal bat irekitzean, bideoak maiztasunarekin igotzea lortu behar baituzu. Gainera, inplikazioa eta gogoak eduki behar dituzu, gero bideoetan emaitza lagungarria lortzeko.

Gustatuko litzaizuke kalean jendeak ezagutzea?

Bai, noski, gainera zenbaitetan gertatu zait eta ikaragarria izaten da. Batzuetan argazkiak eskatu dizkidate eta, oso arraroa iruditzen zaidan arren, oso zorionsu sentiarazten nau.

Eskurtze BHI

Ibai, Ibai, Endika, Roberlin, Vanessa, Gaizka, Juan, Maialen, Bryan, Maria, Edna, Igor, Antonio eta Tyrone



JOSE ANTONIO

Nire ustez bai, gaitutuko dute. Batzuk beste batzuk baino hobeto, baina orokorrean ondo. Nik ere gaitutzea espero dut, normalean pentsatzen dut esaten dudana, eta uste dut egiten dudana ondo egiten dudala.

ENDIKA

Bai. Irakasle onak daude kurtso honetan, batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago. Irakasleak oso hurbilak dira, beti daude arazoak konpontzeko prest.





CRIS

Nik uste dut baietz, hau da, irakasleek ondo egiten dutela bere lana, bueno nik hitz egiten dut gure irakasleei buruz. Nik 5 edo 6 bakarrik ezagutzen ditut, eta gurekin oso ondo portatzen dira. Badaude gauza batzuk, pertsona guztiekin bezala, baina nire partetik gaitutuko dute.

UXUE ETA AINIZE

Bai, nire ustez bai. Baina badaude batzuk ez dutenak gaitutuko, materia ez dutelako ondo ematen, baina ez hori bakarrik, uste dugu ez dutela klasea gustura ematen.



ADRIAN

Uste dut batzuk gaitutuko dutela eta beste batzuk ez. Batzuk jatorrak dira eta ondo portatzen dira nirekin. Orokorrean, denak dira onak, baina batzuekin hobeto moldatzen naiz.

NAOMI

Nik uste dut batzuk, bai, gaitutuko dutela, batzuekin ondo moldatzen naizelako. Orokorrean, ondo moldatzen naiz.



Lorategi Bertikala

Martxoan zehar, Unamuno Institutuan Lorategi Bertikala deitutako tailer entreenigarriak egin ditugu 1. DBHko ikasleok.

Mota askotako landareak erabili ditugu, adibidez: kurria, menda, erromeroa...

Bi orduko tailer horietan zehar denek eskolarekin pixka bat deskonektatu eta ondo pasatu dugu. Honela oso erraz lortu dugu gure Lorategi Bertikala egitea. Hau egiteko beharrezkoak izan dira: plastikozko bi botila, lurra eta landare bat.

Egiteko era oso sinplea da. Hona hemen zelan egin genuen. Lehenengo, botila erditik moztu behar da, eta gero apaindu.

Dekoratu eta gero, aukeratutako landarea iragazkia duen botilan sartu behar da, landareari buelta eman eta botilaren beheko partearen gainean jarri.

Landarearen zatia lurrarekin bete.

Bukatzeko landarea ureztatu eta horma batean itsatsi.

Zu ere egiteko prest al zaude?



Surflari profesionala izatea amets

Ariane Ochoa, 17 urteko surflaria Batxilergo 2. mailako ikaslea da Ibarrekolanda Institutuan, horretaz aparte Juan Crisostomo de Arriaga Kontserbatorian Tronpa espezialitateko 6. mailan ere badago.

Nola hasi zinen surfa egiten?

Dena hasi zen nire ahizpari esker. Nire gurasoak ez dira surflariak, baina, udako egun batean nire ahizpa surfeko ikastaro batera apuntatu zuten. Nire ahizpari asko gustatu zitzaion eta mundu horretan murgildu zen,



lehenengo *hobby* bezala eta gero txapelketen munduan. Nire ahizpak nik baino 7 urte gehiago ditu eta nik txikitik hondartzan ordu asko pasatzen nituen hondartzari begira eta nire ahizpa ikusten, horregatik 6 urterekin gurasoei esan nien nik ere surfa egin nahi nuela eta horrela hasi nintzen. Gero txapelketaren munduan sartu nintzen 8 urterekin eta oraindik horretan nabil, gero eta helburu handiagoekin!!!

Eta zergatik surfa eta ez beste edozein kirol?

Galdera erraza, kar, kar, kar. Egia esanda txikitatik konturatu nintzen surfa niretzat eginda zegoela, edozein surflarik ondo daki zelako sentazioa ematen duen olatuaren gainean joateak, eta naturarekin kontaktuan egoteak. Kirol honetan, gainera, beti aldatzen da zer edo zer, egunero gauza desberdin bat aurkitzen duzu, olatu desberdinak (labazkoak, harezkoak, koralezkoak...), horrelako mila gauza esan ahalko nituzke. Gainera surfa artea da, norberaren sentimenduak areagotu eta gauzaturik ikus ditzakezu olatua hartzerakoan. Arazoren bat izanez gero, uretara noa; surfa egiten gauza guztiak ahazten zaizkidalako eta momentu hori bakarrik disfrutatzea delako.

Institutua, Kontserbatorioa, txapelketak, bidaiak... Nola egiten duzu dena aurrera eramateko?

Egia esanda gauza asko dira. Batzuetan dena pikutara botatzea gustatuko litzaidake, normalean beti astebetean gauza guztiak elkartzen zaizkidalako, baina, orokorrean oso ondo antolatzen dut nire burua dena aurrera eramateko. Nik beti pentsatu dut egiten dudana gauza bakoitzak gauza desberdinak eskaintzen dizkidalako, horregatik egiten ditut. Izan ere Kontserbatorioko lanak asko lagundu dit nire kirola egiteko, oso antzekoak direlako, beti nire eguneko lana egin behar

dudalako, hau da, konstantzia, programazioa eta ardura... eskatzen didalako beste arlo guztietan bezala.

Itsasotik urrun bizi zara, nola egiten duzu entrenatzeko?

Astean zehar Institutuarekin eta Kontserbatorioarekin ez dut denborarik hondartzara joateko, asteburuetan bakarrik entrena dezaket. Neguan eta oporretan beti Lanzarotera noa, alde batetik gertu dagoelako, olatu onak daudelako eta ordu asko eman ahal ditudalako entrenatzen. Zaila egiten zait astean zehar uretan ez sartzea, gainera, txapelketetan ibiltzen diren neska gehienek ez dute ikasten eta egunero daude bidaiatzen eta surfa egiten, eta horrek inbidia ematen dit.

Etokizunari buruz, zer?

Txikitatik gauza bat izan dut argi, nik surflari profesionala izan nahi nuela eta orain ideia berarekin jarraitzen dut. Badakit zaila dela, baina ahaleginduko naiz nire helburura ailegatzeko. Ikusten dudana oztoporik handiena laguntza ekonomikoa da, gaur egun ez dute ia laguntza ekonomikorik ematen eta surfeko frogak mundu osoan dira eta horretarako diru asko behar da. Horretaz aparte, argi daukat ikasten jarraitu behar dudala, nire plana ateratzen ez bada, beste bide bat izateko.

Zenbat txapelketa egin dituzu? Zein izan da irabazi duzun txapelketarik garrantzitsuena? Zein izan da gehien gustatu zaiuzun bidaia?

Ufa! Ezin dezaket esan zenbat txapelketetan hartu dudana parte, asko eta asko izan direla bakarrik esan dezaket. Azken bi urte hauetan emaitza oso onak lortu ditut, horien artean; orain dela urte eta erdi 16 urtera arteko Europako txapelketa izan nintzen, eta Brasilera joan nintzen munduko txapelketara. Bertan bosgarren gelditu nintzen eta aurtengo Europako txapelketa gelditu naiz sub-21 kategorian eta munduko finalean 13. postuan. Egin ditudan bidaia guztiekin Graciosa eta El Salvadorreko bidaiekin gelditzen

naiz. La Graciosa Lanzaroteko uharte txiki bat da eta hau izan zen nire lehenengo bidaia etxetik kanpo, gurasorik gabe, surfeko lagun batzuekin, motxila bat, nire taula eta lo egiteko zakua. Hondartzaren ondoan lo egitea, hau da, abenturaz betetako bidaia izan zen. El Salvadorrekoa da egin dudana azken



bidaietakoa. Askok gustatu zitzaidan, bertako jendea beti laguntzeko prest, ametsak elatuak eta oihanez inguratutako paisaiak...

Kanpotik dena polita ikusten da, hementik eta handik bidaiatzen denbora guztian, baina, ez da dena hain polita izango, ezta?

Zorte ona daukat dudana bizitzarekin, 17 urte izanda esperientzia asko izan ditut. Bidaia guztiekin zerbait ikasi dut, kanpoko mundua ikusi dut, gure betiko errutina eta inguratzen gaituenaz aparte, pertsona askoren istorioak ezagutu ditut eta horrek lagundu dit daukadana baloratzen, egunero inguratzen naue-na. Beste aldetik, txapelketak daude eta kirolari baten bizitza ez da erraza, zure bidean, erabaki asko hartu behar dituzu eta hauek beti izaten dira lagunek hartzen dituzten kontrakoak. Honekin esan nahi dut, adibidez; zure lagunak larunbatero festa egitera joaten direnean, norberak entrenatzen egon behar duela. Baina nik bide hau aukeratu nuen eta ez naiz damutzen erabakiaz, gero eta gauza on gehiago jasotzen baitituzte txarrak baino.



Zergatik ez?

Ibarrekolanda Institutuko 2. Batxilergoko hainbat ikaslek egin genuen bidaian *Zergatik ez* izeneko proiektuan parte hartzeko aukera izan genuen.

Hiru egunetan zehar esperientzia berriak bizitzera joan ginen Euskal Herritik egin genuen bidaia horretan.

Zergatik ez Euskaltzaleen Topaguneko proiektu bat da, helburu nagusizat euskararen inguruan naturaltasunez hitz egitea eta euskararen inguruko erabilera eta kontzientzia sortzea bilatzen duena. Jaso genituen bi hitzaldi haietan euskarak gaur egun jasaten

duen egoera larriaz kontzientziatu ginen eta gudan zelako eragina duen konturatu ginen. Goizeko 8etan geratu ginen Batxilergoko 2. mailako ikasleok Ibarrekolanda Institutuan, goxo-goxo gosaltzeko irakasleekin batera, motxilak bizkarrean jarrita Gasteizera bidaia-tzeko irrikaz. Gasteizera heldu eta hiria apur bat ezagutzeko zikloko ikasleek ginkana bat prestatu zuten. Mutilen taldeak irabazi ondoren *Zergatik ez*-eko bigarren hitzaldira abiatu





ginen eta han euskarari buruzko formakuntza tailer batean parte hartu genuen.

bai irakasleen arteko harremana sendotzeko balio izan zuena.

Hurrengo bi egunak, Nafarroa bisitatzen eman genituen; Iruñeko irrati bat, Txalaparta argitaletxea, Sartaguda, hiriko alde zaharra...

Zergatik ez proiektuan parte hartzeko aukera bikaina izan zen, batik bat euskara sustatzeko eta gu kontzientziatzeko. Horrek gugan lortu zuena, euskara aurrera eramateko nahia izan zen.

Esperientzia oso polita izan zen, klasetik kanpo egindako ekintza informala, bai ikasle

Antzeko bidaia baten esperoan gaude!



Serpinskiren alfombra San Inazion

Aurten, gabon oporretatik bueltatutakoan, San Inazio Institutuko 1. mailakoek alfombra bat egiteari ekin zioten buru-belarri. Agian, negua izanda, pasabideak hotzetik libratzeko.




Oraingoz, ordea, gure zoruek lehen bezain biluzik jarraitzen dute. Orduan... ez al dute eginkizuna lortu? Bada, bai. Baina alfombra bitxi hau, Serpinskiren Alfombra, ez da dekorazioaren azken moda, Matematikekin zerkusia duen proiektu baten parte baizik.

Sierpinskiren Alfombra *fraktal* klasikoa da, ezagunetan ezagunena. Egitura bat eskala ezberdinetan behin eta berriro errepikatzean datza. Beraz, gertutik zein urrunetik begirata, berdina ikusten da, irudi hipnotiko horietako batean bezala. *Fraktal* deritzen objektu hauek naturan edo sukaldean ere aurki ditzakegu, romanesku baratzian, esaterako.



Gaiari bueltak emanez, Almeriako Unibertsitatean erronka bat xede hartu zuten: "Noraino hel gaitzeko alfombra honekin?". Ahalik eta fraktalik handiena sortzeko proiektua jarri zuten martxan, estatu osoko eskola, ospitale eta kultura-erakundeen laguntzarekin, San Inazio Institutua haien artean.

Gurean 64 ikaslek parte hartu dute. 9 gomets erabilia, bakoitzak karratutxo huts bana, lehenengo iterazioa egin zuen. 8 iterazio elkar-tuz 2. iterazioa osatu zen, eta horrela hurrenez hurren. 4. iterazioa osorik bidali genuen, azkenik, Iruñera, han 5. eta 6. iterazioak osa zitzen. Alfombraren bidaia luzearen azken geldiunea Almeria izan zen, non 7 iterazio-rekin aurkezteko prest geratu zen. Guztira, gurea bezalako 512 lan 1600 m, alegia.



Harrigarriak dira batzuetan Matematikak, eta guztion artean lor dezakeguna, are gehiago.

CLASH OF CLANS

Telefono mugikorrentzat eta tabletentzako estrategia joko bata da *Clash of clans* (COC ere deitzen da). Android eta IOSen jolastu ahal dezakezu.

Jolas honetan jokalaria hurririk bat dauka eta bertan hainbat gauza hobetuz joan behar da. Defentsak ezarri behar ditu honetara bere baliabideak babesteko eta kopak irabazteko. Baliabideak: elixirra eta urrea dira, baina geroago elixir iluna lortuko duzu. Baliabide hauek urre meategietatik eta elixir errauzgailuen bitartez lortzen dira edota beste pertsonen hurririk erasotzerakoan lapurtuta; lapurtuz lortzen da kopuru gehien.

Erasoak zuk entrenatutako gerlariekin egiten dira eta zure kuartelak hobetuz lortzen dira

unitate berriak. Gogoratu dena hobetu ahal dela, baina horretarako urrea edo elixirra behar dituzula.

Jokoan talde batzuk daude 'clanak' eta bertan zure lagunekin hitz egin gerlariak zuen artean eman eta clanen arteko gerrak egin daitezke. Clanen arteko gerretan baliabide asko lortzen dira eta horregatik asko egiten dira.

Oso joko interesgarria eta dibertigarria da, baina denbora asko darama.

LA SALLE BILBAO HLBHIP

Eneko Arce, Jon Bilbao, Rebeca Montes, Iker Muniozguren, Gorka Rodriguez eta Xabier Ruiz

Empathy Site

Rebeca, Eneko, Jon, Iker, Gorka eta Xabier gara, eta Empathy Site gizarte ekintzaileen taldea osatzen dugu.

Ekintza hau iaz sortu zen SEIN eskola proiektutik. Zer da SEIN? 2007tik abian dagoen eta DBH osoan ezarrita dagoen diziplina anitzeko irakasgaia da, besteak beste, teknologia, euskara, ingelesa, gaztelania, gizarte, informatika, hiritartasuna, etika, biologia eta geologia ikasgaiak bere baitan batzen dituena.

Lan hau hasi genuenean gure helburua mundu solidarioagoa erakitzea zen. Horretarako, gure inguruan ikusten genituen arazoen artean bat aukeratu eta konponbide bat ematea erabaki genuen.

Munduan 250 milioi etorkin baino gehiago daude eta gure ikastetxean 50 ikasle ingururekin gabiltza egunero, horrexegatik, guk geuk sortu nahi izan genuen aldaketa. Hori dela eta, benetako ongietorri hurbil gisa, eurentzako eta euren senideentzako baliabideak eskaintzen dituen web orrialde bat eratzea izan zen gure erabakia. Egia esan, boluntarioen laguntzaren bidez ikasle hauen gizarteratzea lortu nahi dugu.

Horretarako, gure ideia erreala izan zedin enpresa bezala garatzen hasi ginen. Dena den, hau aurrera eramatea garesti samarra

da, baina are garestiagoa izango litzateke ez egitea. Zer izango litzateke gazte hauen bizitzaz, ez baitute jatorrizko herrialdeetan baliabiderik? Zer izango litzateke gure bizitzaz besteen arazo eta sufrimenduez pasatzen ikasiko bagenu? Nolako herrialdea sortuko genuke gazteok honi konponbiderik emango ez bagenio?

Beraz, dirua lortzeko moduetan pentsatu genuen eta beste 100 ikastetxerekin batera lehiaketa nazional batean aurkeztu genuen geure burua. Ekainaren 24an finala izan zen, eta irabazi egin genuen! Ondoren internazionalen aurkeztu ginen, eta Txina, Holanda, Singapur, India eta Errumania bezalako herrialdeekin parte hartu genuen. Honetan ez genuen irabazi, baina aurrera jarraitu genuen.

Gero, iraila heldu zen, eta proiektua aurreko urtean jaio zen arren, lanean jarraitzea erabaki genuen. Bila ibili ondoren, Bilbao Ekintza udal erakundeak diru-laguntza eman eta ekintzaileak bezala prestatzen lagundu zigun. Bestalde, aspalditik ari gara Campus Bilbao enpresarekin lanean gure plataforma eraikitzen. Gainera, *Google for Education*-ekin ere kontaktuan jarri ginen eta Marc Sanzek bere laguntza eskaini zigun; berarekin plataforma beste ikastetxeetara esportagarria izateko eta erabiltzeko erraza izateko lanean ari gara.

Azkenik, proiektu honek errealitatearekin kontaktuan jartzea ekarri digu gure taldeari; gure heziketaren protagonistak gu geu gara, eskolan nahiz eskolatik kanpo, eta ziur gaudu proiektu hau ilusioz aurrera eramango dugula.




Euskara bitxian idatzitako hamaika kartel topatu ditugu han-hemenka. Barre apur bat egin nahi duzue besteen hanka-sartzeekin?



Barakaldoko Ikea dendan arazo larria dute Google Traductorrekin.

Deustuko Vodafonen ez dute "etxerik".



Hainbeste EEEEE...ezin da!

Egunkaria irakurriz kaka egitean EGINKARIAK egiten dituzu.



Sirenarik gabeko ambulantziak, benetan isilak!

Erasmus proiektua Botikazar ikastetxean: Topaketa Elblagen (Polonia)

2015eko abenduaren 1ean abiatu ginen Bilbotik Gdanskera (Polonia). Turismoaren inguruko lan bat eginez lortu genuen bidaia hau egiteko aukera Erasmus+ proiektuaren barruan. Botikazar BHIko hiru ikasle Irene de Jose, Xabier Cortazar eta Olaia Alberdi izan

ginen aukeratuak eta ekonomiako irakaslea den Iñaki Valencia izan genuen laguntzaile.

Bost egun igaro genituen Elblag hirian bertako familien etxeetan herrialdeko kultura, tradizioa eta historia ikasiz eta gozatuz. Eskuzabaltasun handiz hartu gintuzten haien etxeetan eta familiekin oso harreman ona eduki genuen. Horrez gain, beste zortzi herrialdeetako ikasleekin ere ibili ginen (Frantzia, Italia, Alemania, Herbehereak, Danimarka, Norvegia, Suedia eta Austria) eta guztion artean herri txikien garapenerako proiektua landu genuen. Taldean Torun eta Frombork bezalako hiriak bisitatu genituen.

Esperientzia paregabea izan zen hirurontzat, bertako hezkuntza sistema ere ezagutzeko aukera izan genuen eta haien klaseetan egon ginen. Arratsaldeak hainbat ekintzetan eman genituen: Gdansk hirian erosketak egin, karaokeetan parte hartu, afariak, izotz gaineko patinajea...

Bai Polonia bai beste herrialdeetako ikasleekin harreman sendoa mantentzen dugu oraindik ere, eta mantenduko dugulakoan gaude.

Bukatzeke esan guk gozatu genuen bezala beste ikaskide batzuk ere honelako proiektuetz gozatzeko aukera izatea espero dugula.

Proiektu honen informazio guztia honako helbideetan aurkitu ahal duzue: twinspace.etwinning.net/12040/home eta www.smallcities.eu





ANIMALIAK

R	B	T	I	B	Z	X	T	T	L
V	W	X	W	Y	V	W	X	Q	B
L	L	E	H	O	I	A	I	A	Ñ
A	B	R	S	S	B	M	M	X	T
R	Ñ	R	Z	A	L	D	I	A	Y
Ñ	A	I	Ñ	G	N	O	N	K	V
W	R	A	H	U	R	R	O	R	F
A	R	T	V	A	B	D	A	O	K
B	A	X	X	J	E	O	B	K	A
M	I	O	W	O	H	K	R	O	Y
Ñ	N	R	P	P	I	A	I	D	K
Y	A	I	V	T	A	R	D	I	A
A	X	A	Y	X	T	I	G	L	T
H	Y	S	M	R	V	W	M	O	U
Q	P	S	Ñ	F	N	O	T	A	A

5	3			7				
6			1	9	5			
	9	8					6	
8				6			3	
4			8		3		1	
7				2			6	
	6					2	8	
			4	1	9		5	
				8			7	9



ARDIA - ARRAINA - BEHIA - DORDOKA -
KATUA - KROKODILOA - LEHOIA - SAGUA -
TXERRIA - TXIMINOA - TXORIA - ZALDIA

Uribarri-Kastaños

Uribarri eta Kastaños Nerbioi ibaiadar eta Artxanda mendiaren artean dauden auzo bilbotarrak dira.

Auzoaren beheko parteari Kastaños eta goikoari Uribarri deritzogu, baina ez dago bien arteko muga zehatzik. Bertako biztanleek hantxe egiten dute euren bizitza. Plazak, dendak, liburutegia, merkatua, funikularra, eskolak, dantza taldea, jaiak eta giro aparta aurki ditzakegu, eta laster, metroa ere bai!!!

Tiboli eskola

Auzoan bada 130 urte dituen eskola publikoa, Vda. de Epalza izenez ezaguna. Casilda Iturrizarrek, merkatari aberats baten emazteak, eraikitzeke agindua eman zuen XIX. mendearen amaieran, eta gaur egun milaka eta milaka pertsona hazi eta hezi ditu. Tiboliz gain, Uribarriko Eskola eta Artxandape Ikastola ere aipatu beharra daude.

Funikularra

Artxanda mendia betidanik izan dugu bilbotarrok aisialdirako leku aproposenetarikoa. Naturaz gozatu eta Bilbo hiria oso-osorik altuera batetik ikusteko eta aztertzeke aukera ematen du; hantxe, parkeak, patinaje pista eta jatetxeak ere badaude!!! Bukatzeko, esan beharra dago aurten funikularrak 100 urte bete dituela!!!

Salbatzaile dantza taldea

Lehen aipatu bezala, Uribarri-Kastañosek dantza talde oso berezia du, Salbatzaile, hain zuzen ere. 1938. urtean sortu zen auzoan falta zen hutsune hori betetzeko asmoz, baita euskal kultura nahiz folklorea berpizteko helburuarekin. Gaur egun, 200 pertsona inguruk osatzen

dute. Dantza eta musika ekitaldiak antolatatu ez ezik, Kastañosko jaiak ere antolatzen dituzte, ekaineko lehenengo asteburuan izaten direnak.

Dantzatzeaz eta jaiez gain, badira beste hainbat ekintza, hala nola, musika taldea (L.E.T Hotzak) musika banda (txistuz, panderoz, trikitiaz... osatua) batukada, perkusio taldea, Kastaños Kantari...

Hau guztiaz gain, dantza taldeak urtero Euskal Herriko herrixketako aratusteak ospatzen eta dantzatzen ditu. Aurten, Mundakako, Lantzeko eta Lasarte-Oriako aratusteak dantzatu eta abestu dira.

Amaiera

Gure auzoaren aurkezpenari amaiera emateko, bertako giroa paregabea dela aipatu beharra dago. Auzoa baino, herri txikitxo dirudi. Bertakoek ematen dioten giroari esker, kultura desberdin askotako pertsonak biltzen gara eta bakoitzak auzoan zerbait eskaintzen du.

Ekainaren 3tik 5era Uribarri-Kastañosera hurbildu eta Euskal Jaian parte hartzera animatzen zaituztegu!!! Biba zuek!!!



UNAMUNO BHI
June Telletxea eta Irati Urbina



LANBIDE HEZIKETA ETA DBH ELKARLANEAN

Eskurtze BHIn, Lanbide Heziketako goi mailako Haur Hezkuntzako ikasketak burutzen ari garen ikasle talde bat gara. Ikasurte honetan, guretzat erronka bat den DBHn martxan jarritako Talde Elkarreragileen Proiektuan murgildu gara. Artikulu honekin gure esperientzia aurkeztu nahi dizuegu.

Proiektu honek iaz eman zituen lehenbiziko pausoak, eta bai irakasle bai ikasleen aldetik izandako balorazio positiboa ikusita, aurten guri ere parte-hartzea eskaini digute.

Talde elkarreragileen metodologiaren helburu nagusiak bi dira: ikaskuntza elkar-lanaren bitartez sustatzea eta euskara bihurtzea berdinen arteko komunikazio hizkuntza.

Gure zeregina, boluntario gisa, talde ezberdinak dinamizatzea da, hau da, ikaskuntza prozesuaren bidelagun izatea.

Proiektuarekin hasi aurretik formakuntza jaso genuen materialen aditua den Miguel Lozarekin. Miguel Lozak helduen heziketan eta ikaskuntza komunitarioan lan egiten du. Saioaren lehenbiziko zatian lan egiteko modu honen



oinarri teorikoak aurkeztu zizkigun. Ondoren, boluntariook, ikasitakoa praktikatzeko aukera izan genuen, gure artean talde elkarreragileak osatuz eta jarduera desberdinak burutzuz.

Ikasleen ikaskuntzan bidelagun izatearen garrantzia azpimarratu zigun eta irakaslearen roletik ezberdindu zuen. Gure zeregina, epaiketak alde batera utziz, ikasleak arazo baten aurrean talde moduan konponbideak bilatzen laguntzea da, elkarlana eta ikasle guztien parte-hartzea eta euskararen erabilera sustatuz.

Bestalde, talde txikiak dinamizatzeko pizgarriak zein erabilgarriak izan daitezkeen hainbat esamolde jakinarazi zizkigun, esaterako: "Zelako maila! Unibertsitatean gaudela dirudi!".

Gure ardura nagusienetarikoa bat materiari buruzko ezagutza nahikorik ez izatea zen. Nola lagunduko genien ez bagenekien ezer Matematikaz edo Teknologiaz? Miguel Lozak argi zeukan proiektuaren gakoa ez zela gaiari buruz jakitea, azken finean ez zen gure lana jarduera burutzea erantzunik ez genielako eman behar. Inportanteena, ikasle bakoitzak bere ekarpenak egitea talde lana aberasteko asmoarekin.

Talde elkarreragileetan, oster, taldeka jardun behar dute, elkarrekin ikasi eta ulertu. Guztiok maila berean daude eta bitartekaria bidelaguna besterik ez da prozesu horretan. Izan ere, irakasle rola gaindituz, guztion artean ideiak eta edukiak finkatzen ditugu eta euskara eguneroko tresna arrunta bihurtu zaigu ibilbide horretan.

Talde elkarreragileak astean behin egiten dira, irakasgai desberdinetan. DBHko klase bakoitza 4 azpitaldetan banatuta dago eta horietako bakoitzarekin boluntario bat dago.

Gutariko bakoitzak jarduera zehatz bat izango du eta ikasleek 10 minutu izango dituzte



proposaturiko ariketa burutzeko. Denbora pasa eta gero beste boluntario batengana joango dira, ariketa berri bat egitera.

Igaro dira 4 aste esperientzia honekin hasi ginenetik, hasierako beldurrak gainditzen joan gara, baita ikasle eta bidelagunok ere gero eta gogo handiagoarekin biltzen gara. Izan ere proiektu honen lorpenak ikusten ari baikara. Ikasteko giroa gero eta egokiagoa da, berdinen arteko errespetuzko jarrerak ezartzen ari dira (txandak errespetatzea, zailtasun baten aurrean elkarrenganako laguntza ematea...) eta, gela barruan, euskara eguneroko hizkuntza bilakatzen ari da berdinen arteko harremanetan.



Bilbon, pilota euskaraz



Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleok pilota modalitate desberdinez gozatzeko aukera paregabea izan genuen euskaraz jolas eta joko desberdinen bidez.

5. eta 6. mailako ikasleok parte hartu genuen programa honetan otsailean eta martxoan. Gure ikastetxera proiektuko arduraduna eta bere beste lankide bat etorri zitzaizkigun eta eurek eman zizkiguten Heziketa Fisikoko saio bi gure irakasleen laguntzarekin.

Gu 6. mailan gaude eta iaz ere etorri zirenez, elkar ezagutzen genuen. Oso ondo ibili ginen aurreko ikasturtean eta poz-pozik geunden aurten berriro egiteko aukera geneukalako.

Bilbon Pilota Euskaraz programa Bizijolas proiektu barruan dago eta bere helburua euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatzea eta indartzea da. Bilboko Udalak eskaintzen du.

Eurek diote euskal jolas eta jokoak gure kulturaren euskaraz bizitzeko aukera paregabeak direla.

Lehenengo egunean, eguraldi kaxkarra izan genuen (hotza, euria, haizea...) eta horregatik ikastetxeko jolastokian egin genituen ekintzak. Berak esaten zigun zenbat pertsonenek osatzen zituzten taldeak (2, 3, 4...) eta guk asmatu behar genituen jolasak berak ekarritako materialarekin epe labur batean.

Bigarren egunean, ordea, eguraldia ederra izan zen eta futbol zelaira joan ginen. Han hobeto egon ginen. Txokoetan antolatu gintuen eta joko batetik bestera pasatzen ginen. Oso dibertigarria izan zen, jolas piloak egin genituen: esku-pilota, zesta-punta, beisbola, zibak...

DBHn ere berriro egitea gustatuko litzaiguke!

Deustuko Ikastola
Antxon Agirre eta Itxasne Rodriguez



Udaberria eta uda

Udaberrian ta noski udan
alaituz doa giroa
mendi, hondartza, lonja, piztina
sekulako plan mordoia
herririk herri parranda ugari
benetako lan zoroa
ligatu nahi, ta ez da erraza
lortzea bai arraroa
baina ez harritu, ondo pasatu
bizi egunerokoa.

Ama beti niri esaten dabil
edan behar duzu ura
poztasun handi bat guk daukagu
hasi egingo da uda
ligatzeko prest ni nago aurten
bagiratu mutil hura
kamiseta ez duten mutilak
hondartzan sortzen lilura
uda bukatu dela pentsatu
ta sartzen zait niri tristura.

Antxon Agirre

Itxasne Rodriguez

harrapa zank

2016

Emozioz betetako bidaia ahaztezina!

Aukeratu zure geltokia eta eman izena!



HARRAPAZANK ESZENA

Aurkezpenak
Urtarrilaren 11tik
Izen ematea
Otsailaren 3era arte

Entseguak
Otsailaren, martxoan

Kastinak
Martxoan

Master-Classa
Apirilaren 8an

Senior Gala
Apirilaren 15an

Sakontze tailerra
Apirilaren 7an

Junior Gala
Apirilaren 17an

SORTUZANK TAILERRAK Apirilean

Argazkilaritza

Berto-Rap

Bitxigintza

DJ

Graffiti

Smartphone bideo ekoizpena

Zirkoa

www.harrapazank.com



B
Bilbao

euskaltzaleten
topagunea